

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

352/2014 Foru Agindua, abuztuaren 7koa, behin betiko onartzen duena, zenbait baldintzarekin, Guardiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedientea (upeltegien garaieraren inguruko aldaketa)

AURREKARIAK

Lehenengoa. Guardiako Udalak, 2011ko maiatzaren 18an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedienteari, upeltegien garaieraren ingurukoari, baita espediente hori jendaurrean jartzea ere. Halaxe egin zen iragarki egokiak argitaratuz ALHAOren 67. zenbakian (2011ko ekainaren 3koan) eta 2011ko ekainaren 8ko El Correo egunkarian.

Bigarrena. Jendaurreko informazio aldiaren ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Horregatik, udalak, 2011ko urriaren 10ean egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Proposatutako aldaketak lurzoru urbanizaezinean eragina duenez gero, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura egokia izapidetu da. Aurretikostena 2011ko maiatzaren 12an eman zen, eta behin betiko txostena 2012ko abenduaren 19an.

Laugarrena. Guardiako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onarpena jaso zezan (Aldundi honen Erregistroko sarrera data: 2019ko maiatzaren 9a).

Bosgarrena. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horri buruzko txostena eman zuen bere 4/2014 bilkuran, uztailaren 31n.

OINARRIAK

Lehenengoa. Espedientearen xedea hau da: "upeltegi handien" (Guardiako LPLko eta bere aldaketako nomenklaturaren arabera, hau da, urtean 250.000 litro ardo baino gehiagoko ekoizpena dutenen) eraikinekin loturiko zenbait eraikuntza parametro aldatzea, Zehazkiago, bi irizpideri jarraituz aldatu nahi dira horiek: batzuk, udalaren erabakiagatik, eta besteak, aipatutako LPLren aldaketara nahitaez egokitu beharagatik.

Lehenengo irizpideari dagokionez, onartutako gehieneko garaiera (erlaizeraino) eraikin bereizgarrientzat 20 metrotan planteatzen da, oraingo 14 metroren ordez. Pabiloien gehieneko garaiera 10 metrotan mantentzen da, eta adierazten da solairu kopurua ekoizpen prozesurako behar dena izango dela.

Bigarren irizpideari jarraituz, eraikigarritasuna $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$ tan ezartzen da, lurzati hartzailearen gutxieneko azalera 10.000 metrotan eta gehieneko okupazioa ehuneko 50en.

Bigarrena. Aldaketa, halaber, irizpide bikoitz batekin arazoitzen da.

Udalaren hirigintza eskumenaren ikuspuntutik, Arabako Errioxan upeltegiak ezartzearen azkenaldi honetako historia argudiatuz erabaki da eraikin bereizgarriaren garaiera handitzea. "Autore eraikina" kontzeptutik abiatzen da upeltegi handiak gizarte eta ekonomia aldetik balioztatzeko bide bezala, gehieneko garaieraren parametroa funtzionaltasun hutsetik urrunduz. Alde horretatik, uste da 20 metroko garaiera egokiagoa dela arkitektura, estetika eta –esaten den bezala– erakundearen bereizgarritasunaren eskakizunei erantzuteko.

Beste alde batetik, Guardiako LPLra moldatzeko aldatzen dira parametro batzuk (honek, bidezkoa denez, ez du arrazoi gehiagorik behar).

Izapidetzen ari den aldaketa puntualean, ez da azaltzen kokaleku zehatzik. Hortaz, upeltegi berrien ezarketarako garatu beharreko plan berezietan aztertu beharko da, zehatz-mehatz eta kasu bakoitzerako, planteatutako ardogintza eraikinek paisaia aldetik duten eragina, horrela ingurumen eraginaren behin betiko txostenari erantzunez.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Guardiako udalerriko planeamenduko arau subsidia-
rioen aldaketaren espedientea (upeltegien garaieraren inguruko aldaketa), bertako udalak
sustatua eta izapidetua, ondoko aldaketa honekin:

– Dokumentu teknikoak jaso beharko du duela gutxi onartu dela ekainaren 3ko 89/2014
Dekretua, Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monu-
mentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko dena (EHAren 111. zk., 2014ko ekainaren 13koa).

Bigarrena. Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea
foru aldundiari igorriko zaio, berriro ere jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa
dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean
administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko
Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jaki-
narazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abuztuaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO